

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Obren kontratua esleitzea Legutioko 2. poligonoko 1435. lurzatian (Carmen kalea), lur gaineko aparkalekua eraikitzeko

Alkatetzaren 2017ko abenduaren 19ko 171219A Dekretuaren bidez esleitu zen obren kontratua Legutioko 2. poligonoko 1435. lurzatian (Carmen kalea), lur gaineko aparkalekua eraikitzeko, eta horren formalizazioa argitaratu egiten da, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako sektore publikoko kontratuen legearen testu bateratuak 154. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

1. Erakunde esleitzailerak:

a) Erakundea: Legutioko Udala.

b) Kontratzailearen profilaren Interneteko helbidea: www.legutio.eus.

2. Kontratuaren xedea:

a) Kontratu mota: obrak.

b) Xedearen azalpena: lur gaineko aparkalekua eraikitzea Legutioko 2. poligonoko 1435. lurzatian (Carmen kalea).

3. Aldizkaria eta kontratatzailearen profila: lizitazio iragarkia argitaratu zen eguna: 2017ko urriaren 13ko ALHAO (118. zk.).

4. Izapidetzea eta prozedura:

a) Izapidetzea: arrunta.

b) Prozedura: irekia, hainbat esleipen irizpiderekin.

5. Kontratuaren lizitazio oinarria:

Zenbateko garbia: 66.460,52 euro. Zenbatekoa, guztira: 80.417,23 euro.

6. Kontratua formalizatzea:

a) Esleipen eguna: 2017ko abenduaren 19a.

b) Kontratista: Excavaciones y Obras de Diego, SM

c) Esleipenaren zenbatekoa: zenbateko garbia: 60.080,31 euro gehi BEZaren 12.616,86 euro. Zenbatekoa, guztira: 72.697,17 euro.

Legutio, 2017ko abenduaren 26a

Alkatea

NEKANE GARAIGORDOBIL BENGOA